




IDAZMENAREN EBALUAZIOA

TESTUAK ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

2013ko Ebaluazio Diagnostikoa
Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia

EUSKARA
Lehen Hezkuntzako 4.maila



ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

IDAZMENA ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Ebaluazio-irizpideen azalpena.

Idazmena ebaluatzeko irizpideak hiru bloketan antolatu dira:

- Komunikazio-egoerara egokitzea (Gaitasun Soziolinguistikoa)
- Koherentzia eta kohesioa (Gaitasun Diskurtsiboa)
- Morfosintaxia, lexikoa eta ortografia (Gaitasun Linguistikoa)

1. Komunikazio-egoerara egokitzea. Gaitasun Soziolinguistikoa.

Egokitasuna propietatearen bidez testua komunikazio-egoerarekin eta testuinguruarekin lotzen da. Hala, testuak komunikazio-egoeraren parametroak islatzen ditu: solaskideen jarrera, komunikazio-asmoa, ekoizpen- eta harrera-kanala... eta horiek testuari dagokion hizkuntza-erregistroaren ezaugarriak markatzen dituzte. Halaber, testua komunikazio-egoerak eskatutako gaiari lotzen zaio.

Hauek dira **egokitasunarekin** zerikusia duten adierazleak:

- **Helburua.** Ea atazan proposatutakoa errespetatzen den ala ez: deskribatzea, kontatzea, azaltzea, argudiatzea.... eta ea item-eko agindua betetzen den (narrazioa idatzi, albiste, gutuna...).
- **Gaiarekiko lotura.** Ea informazioa esanguratsua den emandako komunikazio egoerari erreparaturik eta ea ikasleek ekoitzi behar duten testu-generorako egokia den. Ea proposatutako komunikazio-egoera kontuan izanik, informazioaren kantitatea nahikoa den eta kalitateari begira esanguratsua den.
- **Hizkuntza-erregistroa.** Ea erabilitako hizkuntza-barietatea (formala, ez-formala...) ondo egokitzen zaion proposatutako hizkuntza atazari.
- **Testu-generoari dagozkion beste zenbait adierazle:** objektibotasuna/ subjektibotasuna, erreferenteari eustea, solaskideen inplikazioa. (ezaugarri hauek balioetsiko dira beti ere eskatutako testuan esanguratsuak badira)

2. Koherentzia eta kohesioa. Gaitasun diskurtsiboa.

Koherentzia propietatearen bidez testua, oro har, zentzu-unitate gisa antolatzen da. Informazioaren aukeraketan eta horren antolaketan egitura jakin bat ikusten da. **Kohesioa** propietateak biltzen ditu testuko informazioaren arteko loturak ahalbidetzen dituzten hizkuntza-mekanismoak. Mekanismo horiek, batez ere, bi motakoak dira: morfosintaktikoak eta lexikoak.

Hauek dira **koherentziarekin eta kohesioarekin** lotutako adierazleak:

-Informazioaren garapena eta koherentzia. Ea informazioa modu esanguratsuan aukeratzen den, eta ea ez dagoen kontraesanik, alferrikako errepikapenik, betelanik... eta ideiak eta datuak modu logikoan garatzen diren.

-Testu-egitura. Ea eskatutako testuaren egitura errespetatzen den: narrazioa, deskripzioa...

-Kohesio-mekanismoak. Ea testuko atalak ongi lotzen diren, testu lokailu eta antolatzaile egokien bidez, erreferentea galdu gabe, gaiaren garapena bermatuz.

3. Morfosintaxia, lexikoa eta ortografia. Gaitasun Linguistikoa.

Gaitasun Linguistikoa propietatearen bidez testua arau gramatikaletara egokitzen da. Arau morfosintaktikoen eta ortografikoen erabilera zuzena eta lexiko egokiaren erabilera dira irizpidea nagusiak.

Hauek dira adierazleak:

-Morfosintaxia. Ea egitura morfosintaktiko zuzenak eta askotarikoak erabiltzen diren.

-Lexikoa. Ea eskatutako gaiari ondo egokitzen zaion lexikoa erabiltzen den.

-Ortografia eta puntuazioa. Ea hizkuntzaren oinarrizko ortografia eta puntuazio arauak errespetatzen diren.

INFORMAZIO TESTUA

Guztira **35 minutu daukazu** proba hau egiteko:



IDATZI BAINO LEHENAGO: Pentsatu zer idatziko duzun eta zure ideiak antolatu.

IDAZTEN ARI ZARENEAN, testuaren itxura, gramatika eta ortografia zaindu.

BUKATUTAKOAN testua birpasatu.

L4EE1841

Herriko bidegorrian istripu bat izan da eta zuk eskolako aldizkarirako gertatutakoaren berri emango duzu.

IDATZI ZURE ALBISTEA

Zure albistea idaztean galdera hauei erantzun behar diezu:

- ❖ Zer gertatu da?
- ❖ Nork egin du?
- ❖ Nola gertatu da?
- ❖ Noiz eta non izan da?
- ❖ Zergatik gertatu da?



Adi egon. Zure testua idaztean kontuan izan albistearen egitura: goiburua eta gorputza.

- Antolatu testua paragrafoetan.
- Gertakizunak modu argi eta ordenatuan idatzi.
- Idatzi gutxienez **100 hitz**

01

L4EE1841

IDATZI ZURE ALBISTEA:



.....

Idazmena LH INFORMAZIO TESTUA – Albiste bat idatzi (Bidegorrian istripu bat izan da)						
	0	1	2	3	4	5
KOMUNIKAZIO-EGOERARA EGOKITZEA (Gaitasun Soziolinguistikoa)		Testuaren helburua / Gaiarekiko lotura: -Ikasleak ez du ondo ulertu edo ez du eskatutakoa betetzen. -Oso datu gutxi ageri dira edota aipatu baino ez dira egiten. -Atalak falta dira. Hizkuntza-erregistroa: -Lagunarteko diskurtsoa ageri da, hitz egingo balu bezala idazten du. Objektibotasuna gaiaren garapenean -Ikuspuntu subjektiboa eta desegokia; ikuspuntuak nahasten dira; ulertzeko zaila.	Testuaren helburua / Gaiarekiko lotura: -Helburua nekez betetzen da. ALBISTE bat izan daiteke, baina gaizki azalduta dago. Edo albiste ondo azalduta baina beste gai bati buruz. -Oinarritzko datuak agertu arren, ez daude azalduta. -Zerrenda bat da edo oso testu laburra. Hizkuntza-erregistroa: -Ahozko eta idatzizko hizkuntza nahasirik ageri dira. Ez dio eusten hizkuntza estandarren erregistroari. Objektibotasuna gaiaren garapenean: -Ikuspuntu objektiboa ager daiteke, baina ez egoki erabiltza.	Testuaren helburua / Gaiarekiko lotura: -Testua ALBISTE bat da. - Atazan proposatutako gaia zenbait alderditan garatzen da. Gaiaren edukia bereizten dira (zer, nork, nola pixka bat azalduta ageri dira). Hizkuntza-erregistroa: - Hizkuntza estandarra ageri da, hizkuntza idatzari lotutakoa. Hala ere, ahozko hizkuntzari lotutako ezaugarriren bat edo beste ageri da batzuetan. Objektibotasuna gaiaren garapenean: - Oro har, objektibotasuna nagusitzen da, nahiz eta noizbehinka inplikazio pertsonala agertu.	Testuaren helburua / Gaiarekiko lotura: - Testua istripu bati buruzko ALBISTE bat da. - Atazan proposatutako gaia nahiko ondo garatzen da: zer, nork, nola eta datu gehiago... Hizkuntza-erregistroa: - Erregistroa formal da, idatzizko hizkuntzakoa, ez du ahozko hizkuntzari lotutako ezaugarriarik. Objektibotasuna gaiaren garapenean: - Ikuspuntu objektiboa erabiltzen du nagusiki. -Ikuspuntu aldaketak ematekotan, informazioaren atal batetan.	Testuaren helburua / Gaiarekiko lotura: - Testua bidegorrian gertatutako ALBISTE bat da. - Atazan proposatutako gaia oso ondo garatzen da: zer, nork, nola, noiz eta zergatik. Hizkuntza-erregistroa: -Erregistro estandarra, nahiko formal. Lagunarteko espresiorik ez dago. Objektibotasuna gaiaren garapenean: - Ikuspuntu objektiboa erabiltzen du. -Ikuspuntu aldaketak ematekotan, logikoak dira eta aberatsak. -Aditza ondo erabiltza.
KOHERENTZIA ETA KOHESIOA (Gaitasun Diskurtiboa)	19 hitz edo gutxiago dituen testua. Zentzurik gabeko testua da edo dituen ezaugarriengatik ezin da baloratu.	Informazioaren progresioa eta koherentzia: - Testua inkoherentea da. -Ideiak errepikatzen dira edo ideia gutxi daude. Informazioa urria da, edo oso era traketsean dago sarturik. Testuaren egitura: -Ez dira agertzen albistearen atalak. -Beste testu–genero bat idatzi du ('bizen behin...', 'kaixo ni ...naiz'...) -Ez dago inongo paragraforik edo egiturarik. Testu-antolatzaileak eta lokailuak: -Ez dago oinarritzko antolatzailearik edo lokailurik edo gaizki erabiltza daude.	Informazioaren progresioa eta koherentzia: -Ideiak eta datuak ez daude oso era logikoan antolatuta. Inkoherentziak agertzen dira. -Ideiak errepikatzen dira. Informazio berria urria da edo era traketsean dago sarturik. Testuaren egitura: -Ez dira antzematen albistearen atalak edo gutxi garatuta daude. -Ez dago paragraforik edo atalik. Testu-antolatzaileak eta lokailuak: -Lokailuren bat ager daiteke (edo gaizki erabiltza daude).	Informazioaren progresioa eta koherentzia: - Ideiak eta datuak era logikoan antolatuta daude, eta nahiko ondo azalduta. Ez dago inkoherentzia larririk; ideiak nahiko pertinenteak dira. -Ideiak ez dira ia errepikatzen, informazio berria agertzen da. Testuaren egitura: -Albistearen atalak ageri dira: goiburua eta gorputza. -Edukiak ondo sailkatuta ataletan. Testu-antolatzaileak eta lokailuak: - Oinarritzko testu-antolatzaile edo lokailuren batzuk erabiltzen ditu.	Informazioaren progresioa: -Ideiak eta datuak ondo antolatuta daude eta egoki azalduta. Koherentzia badago eta ideiak pertinenteak dira. -Ideiak ez dira errepikatzen, informazio berria agertzen da eta ondo ordenatuta. Testuaren egitura: -Albistearen atalak argi ageri dira: goiburua eta gorputza. -Ideiak paragrafotan edo ataletan daude sailkatuta. Testu-antolatzaileak eta lokailuak: -Oinarritzko testu-antolatzaileak eta lokailu batzuk agertzen dira: denborazkoak edo gertatutakoa azaltzekoak batez ere.	Informazioaren progresioa: -Ideiak eta datuak era logikoan antolatuta daude eta argi azalduta. Ez dago bat ere inkoherentziarik, ideiak pertinenteak dira. -Ideiak ez dira errepikatzen, informazio berria agertzen da eta ondo antolatuta eta kohesionatuta (logikoki, kronologikoki...) Testuaren egitura: -Albistearen atal guztiak eta horrez gain informazio gehigarria ager liteke (sarreratxoa, lead...) -Ideiak paragrafotan edo ataletan oso ondo antolatuta daude. Testu-antolatzaileak eta lokailuak: -Oinarritzko testu-antolatzaileak eta lokailuak ditu: gertatutakoa ulertzeko balioarriak dira.
MORFOSINTAXIA LEXIKOA, ORTOGRAFIA (Gaitasun Linguistikoa)		Morfosintaxia: -Oinarritzko akats ugari. Testua ez da ulertzen. -Esaldiak gaizki osatzen dira. -Perpaus bakunak ageri dira edo lotu gabeak. - Hitzak elkartuta. Lexikoa: -Ez da egokia. Erdaradak agertzen dira. -Oro har, hitzak errepikatzen dira edo oso hitz gutxi dago. Ortografia eta puntuazioa: -Oinarritzko akats asko. -Ez du maiuskularik erabiltzen Ez du puntu ondo erabiltzen Hitzak, batzuetan, elkarturik	Morfosintaxia: -Oinarritzko akatsak ageri dira, hala ere testua ulergarria da. -Esaldi batzuk ez dira ondo osatu. -Batez ere perpaus bakunak ageri dira. - Perpaus elkartu errazen batzuk ager daitezke (eta, baina...). Baina horrelakoetan akatsak antzematen dira. Lexikoa: -Ez da oso egokia eta pobre samarra da. -Hitzak errepikatzen dira. Ortografia eta puntuazioa: -Oinarritzko akatsen bat agertzen da. Maiuskulak erabiltzen dituen arren, batzuetan akatsak egiten ditu. -Puntua erabiltzen du, baina batzuetan gaizki. -Hitzak banatzen ditu.	Morfosintaxia: - Ez dago oinarritzko akats askorik edo ulergarritasuna eragozten duenik. - Esaldiak nahiko ondo osatuta daude (ordena, osagarriak...) -Perpaus elkarturen bat edo beste ageri da. Lexikoa: -Lexikoa egokia da. -Hitzak ez dira gehiegi errepikatzen (nahiz eta errepikapenen bat egon). Ortografia eta puntuazioa: -Ez dago oinarritzko akats askorik edo ulergarritasuna eragozten duenik. -Maiuskulak erabiltzen ditu. -Puntua modu egokian erabiltzen du. -Hitzak banatzen ditu.	Morfosintaxia: -Oinarritzko akats morfosintaktiko gutxi dago. -Ondo osatzen dira esaldiak. - Perpaus elkartuak eta menpeko sinpleenak, erabilienak ageri dira. Lexikoa: -Hiztegia oso egokia da. -Oro har, hitzak ez dira errepikatzen. - Lagunen arteko hizkera ez du erabiltzen. Ortografia eta puntuazioa: -Ez dago akats handiegirik oinarritzko ortografia edo puntuazioari dagokienez. -Maiuskulak ondo erabiltzen ditu. -Puntua modu egokian erabiltzen du. -Hitzak banatzen ditu.	Morfosintaxia -Ez dago akats morfosintaktikorik. -Esaldiak oso ondo osatuta daude (ordena, osagarriak...) -Perpaus elkartuak eta menpeko errazenak ongi erabiltza ageri dira. Lexikoa: -Oso egokia da eta aberatsa izan daiteke. - Sinonimo edo hiperonimoak ageri dira (bidegorria, pista, errepidea, espaloia...) Ortografia eta puntuazioa: -Oinarritzko ortografia edo puntuazio arauak ondo erabiltzen ditu. -Maiuskulak ondo erabiltzen ditu. -Puntua eta bi puntuak modu egokian erabiltzen du. -Hitzak banatzen ditu.

ERANSKINA: arau orientagarriak

HIZKUNTZA GAITASUNA: GRAMATIKA, ORTOGRAFIA, PUNTUAZIOA

Akatsen balorazioa gramatika arloan:

Datozen akatsak oinarrizkoak dira, hortaz, sistematikoki errepikatzen badira, akatsa larria da:

- Ergatiboa gaizki erabiltzea: “*Ni esango dizut*”, “*Nik hasi naiz lanean*”...
- Aditzaren komunztadura ez errespetatzea: “*Gizonak ikusi dut*”, “*Liburu batzuk erosi zuen*”.
- Denbora-nahasketa handiak: “*Etorriko bazina etxera joango gara*”, “*Joango behar du*”.
- Ordena oso gaizki jartzea: “*Ez nahi du etorri*”, “*Daukat etxe bat mendian*”, “*Alokatzeko baserria da gehiegi*”.
- ...

Errakuntza morfosintaktiko bakan batzuk onargarriak badira ere, akats larriak sistematikoki egiten baditu edo, sistematikoki izan gabe, puntu desberdinetan behin eta berriz huts egiten badu, 2, 1 edo 0 mailetan kokatuko zaio.

Akatsen balorazioa ortografia arloan:

Ikasleek idazlanetan egiten dituzten akatsak era askotakoak izaten dira: batzuk munta handikoak edo “larriak” eta beste batzuk ez hain larriak edo garrantzi gutxiagokoak. Arinak ez dira kontuan izango (esaterako, teknizismo bat gaizki idatzita egon...)

Oinarrizko arau ortografiko eta maiztasun handiko hitzetan egiten direnak akats larritzat hartuko dira. Maiztasun urriko hitzetan edo egitura sintaktiko konplexuago edo bitxiagoetan egiten direnak ez dira normalean hain garrantzitsuak.

Ondokoan idazmenean behinik behin larritzat jotzen diren hainbat akats ematen dira, adibide gisa:

- Erabilera handiko hitzetan egiten diren akatsak larriak dira beti, hala nola aditz laguntzaile formetan S agertzea (“*nais*”...), tx, ts, tz daramaten hitz ezagunak gaizki idaztea (“*etzea*”...)
- Aldiz, beste zenbait huts txikitat joko dira: erabilera urriko hitzen ortografia (“*h*”ak bereziki) edota gaztelaniak eragindako akatsak (m p aurretik, v...)
- Letra larrien erabilera okerra.
- ...

Akatsak urriak eta ez larriak direnean 5, 4 edo 3 mailetan koka daiteke idazlana. Kontuan izan akats berbera bakartzat kontatuko dela.

Akatsen balorazioa puntuazioan: Gutxienez, marka hauek agertu beharko lirateke:

- Paragrafoen amaieran puntu joan behar da, baita ideia bat duen esaldi baten amaieran.
- Harridura eta galdera ikurra edo zeinua ipini behar dira, behar direnean.
- Koma ohiko erabilpenean jarri behar da: zerrendetan, kontaktaren haria eteten denean, aposizioetan...
- Erabiltzen direnean, ondo erabiltzea: komatxoak, parentesiak eta gidoiak.

Kontuan eduki, akatsak oso ugariak ez direnean, 3. mailan ahal dela kokatu.

IDAZMENAREN EMAITZAK JASOTZEKO TXANTILOIA

IKASLEA: _____

DATA: _____

ADIERAZLEAK	0	1	2	3	4	5
1. KOMUNIKAZIO-EGOERA EGOKITZEA (Gaitasun Soziolinguistikoa)						
- Testuaren helburua / Gaiarekiko lotura - Hizkuntza-erregistroa - Objektibotasuna gaiaren garapenean						
2. KOHERENTZIA ETA KOHESIOA (Gaitasun Diskurtsiboa)						
- Informazioaren progresioa eta koherentzia - Testuaren egitura - Testu antolatzaileak eta lokailuak						
3. MORFOSINTAXIA, LEXIKOA, ORTOGRAFIA (Gaitasun Linguistikoa)						
- Morfosintaxia - Lexikoa - Ortografia						
HASIERAKO MAILA			ERDI MAILA		MAILA AURRERATUA	

ADIBIDEAK

Isabell

(Orain) Oraindik gutxi(eto) atzo 2013-ko apirilaren 8an Gernika - Muzetako leide - gortian bi txirrindularik is-
tripu izan dute alkarren(aurka). Biak min(handua)
handia dute oraindik baina medikuak esaten du ondo
jorrika direla baina, posible da biak(hor) hartz berik
gelditzea. Batek hamar oruti du izena eta besteak Xabier Duña-
bertia, biak 48 urte dituzte. Lagunak dira biak oso estagu-
nak, Zis berdinan bizi dira.

Orain aldiz ba ospitalean dute. Hamarrek esaten du
Xabierren erous izan dela baina parkatuta ohiela.
Xabierrek aldiz parkatu eskatu dio eta honatu egiten du
bere erous izan zela, aurr bat desbideratu zela.

Ordun parkatu dira bata - besteak eta esaten dute esaten
diren barrio itetako direla baina oraingar ibiltzen.

Gaitasun Soziolinguistikoa	Gaitasun Diskurtsiboa	Gaitasun Linguistikoa
4	5	4

- ✓ Helburua betetzen da baina erregistroa ez da guztiz egokia (“ba ospitalean”). Informazio testuetan objektibotasuna oso garrantzitsua da eta testu hau nahiko objektiboa da.
- ✓ Izenburua eta paragrafoak ditu; informazioa esanguratsua da eta aurrera egiten du. Testua koherentea da eta ondo kohesionatua (esaldi konpletiboak ondo erabilia). Testu-antolatzaile egokiak (“Orain dela gutxi”, “baina”, “aldiz”).
- ✓ Oro har, ondo idatzita dago eta lexikoa egokia da. Espresioen batek (“parkatu dira bata-besteak”) eta ergatiboaren erabilpen desegokiak (“biak”) puntuazioa apaltzen dio.

Istripua..... Autzagoren.....

2013ko apirilaren 22a

Bi autok aurrez- aurrez istripua euki dute. Autzagoren hau da, Zornotzara joateko, istripua euki dute. Bi autok istripua euki dute, aurre-aurrez. Bata alde batetik joan da etabetea batetik. Antza denez harri bat egon da eta aldetik ihoragin du eta jo egin dira.

Poliziak inbertigatu du eta hiru urte hil egin dira eta lau guraso eta inmet sauritutza gelditu dira. Azken autoak ez dute istripu handirik euki, baina autok aurrek aldea apurtu.

Beraz Tuna laste egongo denez, istripu gutxiago eukiho dugu eta harriak ihusten baltituzne paratu gaitetik. Agur eta eskerrikasko

Aier

98
hitz

Gaitasun Soziolinguistikoa	Gaitasun Diskurtsiboa	Gaitasun Linguistikoa
3	4	3

- ✓ Helburua betetzen da eta gaia ondo garatzen da. Nahiko objektiboa da (nahiz eta amaieran agurra eta sinadura desegokiak sartu) eta erregistroa ondo dago. Eskatutako hitz kopuruak ez betetzeak puntuazioa apaltzen dio.
- ✓ Ideiak eta datuak ondo antolatuta daude eta lokailuak ondo erabilia ("antza denez", "beraz"). Testua paragrafoetan antolatuta dago; izenburua eta ondorio laburra daude.
- ✓ Oro har, egoki idatzita nahiz eta esaldi bat errepikatuta egon hasieran. Zenbait kasutan erabilpen desegokiak ("jo egin dira", "autoko") eta ergatibo baten akatsa ("autoak ez dute"). Puntuazioa ondo dago.

ISTRIPUA HERRIKO BIDEGORRIAN

2013ko uztailean Sean, Martin Gamido
izeheko ume bat biziketatik erori eta hanka bat
apuntudu.

14 urte zituen eta hanka mikxipoa. Baste behan
izango ditu hanka ondo jantzeko. Dinudiehez
Andoa intik gentu izanda eta azkan joan
izan alhal zuten hospitala lekoen. Ona iheran
didate ez zela hiru aste Gaste baizik!
Oso grabea izanda ikusten dutuen bezala.
Oso nehagaria izango zen nola
tratatzen diren aia ikustea, bai familiari
eta bai guri. Batez ere nola ateratzen
den odola. Gainera hurren go larunbatean
partida zeukan, bai esku pilota ko partida,
eta gainera semifinala zen! Oso triste
geratu da, semifinala ez duela jokatu ko. Beno
komela baxk dina egingo diogu ba!
+100 gauzak batzutan, zen

Gaitasun Soziolinguistikoa	Gaitasun Diskurtsiboa	Gaitasun Linguistikoa
3	3	3

- ✓ Helburua betetzen da eta gaia ondo garatzen da (istripua da, zer, nori... kontatzen du). Testuaren erdian eta amaieran bere aburua sartzen du (harridura ikurrak, "beno"...), eta horrek eragina du erregistroan (ez formala).
- ✓ Ideiak eta datuak ondo samar daude ordenatuta. Testua paragrafoetan antolatuta dago; izenburua eta sarrera dago. Ondorio laburra du, nahiz eta lagunen artekoa izan. Lehen aldian idatzita dago eta amaieran orain aldira ("triste geratu da") pasatzeak puntuazioa apaltzen dio.
- ✓ Ez daude akats larririk. Puntuazioa ondo dago. Letraren bat falta zaio eta batzuetan ematen du hitzak elkarturik daudela ("ateratzen duen") baina bere idazkera izan daiteke.

Istripu bat

Pasaden asteartean, Turtziozen istripu bat egon zen. Gidari bat txirindulari bati zapaldu zuen, txirindularia hil zen, eta gidaria ospitalean dago ala ixarrita.
 Ona indik ez daki inork nola gertatu den, baina txirindularien txirindula denetarik apurtuta-apurtuta zegoen. Kotxea ez zekiten non eagoen Hurrengo egunean ibaian aurkitu zuten.
 Bat - Bataren kotxean pertsona bat zegoen hilda. Gidaria ez zuen ezer esan nahi.
 Polizia pistak bilatu zituen eta zituen ezer aurkitu.
 Hurrengo egunean polizia pista egi aurkitu zuen gidaria eta bestea hil zena autoaren barnean zekian. Balmasedak juzgadora joan zen eta kuzizatu izan zuen gidariari. Hamaheko urte egin behar zen atxilotzeko. Ez dute berriro ezer egin!

Gaitasun Soziolinguistikoa	Gaitasun Diskurtsiboa	Gaitasun Linguistikoa
4	3	2

- ✓ Informazio testua da. Helburua betetzen da, gaia ondo garatzen da eta objektiboa da (nahiz eta harridura ikurra izan amaieran).
- ✓ Ideiak ondo daude antolatuta paragrafoetan eta antolatzaileak ondo erabilia ("Pasaden asteartean", "Hurrengo egunean") daude. Informazioa aurrera doa nahiz eta batzuetan nahasia izan (pertsona bat hilda autoaren barruan). Aditz denboraren erabilpenean saltoak ematen dira baina ez dute ulargarritasuna eragozten.
- ✓ Hiztegi urria ("kotxea"), akats ortografiko, gramatikal eta sintaktikoak (ergatiboak, "txirindulari bati zapaldu", "eta zuen ezer aurkitu", "sartu zuen gidariari", "egon behar zen").

HERRIKO.....ISTRIPIA.....

Nire herrian istripu bat egon da bidegostrian. Gizon bat bizikletaz ibiltzen zegoen eta bidegostrian kotxe bat zegoen eta kotxearekin tokatu zen. Gero polizia eta ambulantzia deitu zioten. Poliziak inbestigatu zuen kasua eta kotxeko gidariari puntu gutxiak kendu zioten. Ambulanzia, berriz, gidariari atenditu zioten, odol asko galdu zuen eta hospitalera eramán zuten. Hospitalera operazio asko egin zuten, eta azkenean gizona sobrebibitu zuen. Kotxeko gidariak, berriz, ere bai odol asko galdu zuen eta erabai ambulanzian hospitalera eramán zuten. Anestesia ipini zuten eta operazio asko egin zuten, berriz ere bai sobrebibitu zuen. Azkenean barkamena eskatu zuen kotxeko gidariak, bizikletako gidariari eta lagunak izan zioten bizitzan osoan.

Gaitasun Soziolinguistikoa	Gaitasun Diskurtsiboa	Gaitasun Linguistikoa
3	3	2

- ✓ Helburua betetzen du; zer, non, nola, nork azaltzen du eta nahiko objektiboa da.
- ✓ Ideiak eta datuak egokiak izan arren, errepikatzen dira; informazioa ondo antolatuta dago (“gero”, “azkenean”). Nolanahi ere, gutxieneko koherentzia eta kohesioa gordetzen dira (nahiz eta lokailuren bat txarto erabili: “berriz, ere bai,”). Lehen aldian idatzita dago eta ondorio laburra agertzen da.
- ✓ Sintaxia oinarritzakoa da eta hitzak errepikatzen dira. Akats ortografiko eta gramatikal batzuk agertzen dira eta aditz laguntzaileak txarto erabiltzen dira batzuetan (“puntuak kendu zioten”, “lagunak izan zioten”). Lexiko desegokia (“txokatu”, “atenditu”, “sobrebibitu”).

ISTRIPU BAT!

Gaur goizean istripu bat gertatu da. Neska bati gertatu zaio. Goizean joateko lanera haize gogorra jo du eta jausi du neska. Goizean 9:00etan parketik. Haize gogorragatik hostoak bere aurpegiari jausi zaio eta ezin du begiratu. Gero 10:00etan hospitalera joan da. Bera gurasoak etorri dira. Laura izena du bere ama Maria eta bere Aita Carlos. Oina oso txarto dago eta ere bai bere besoa. Hori dena.

Hori dena gertatu da

ISTRIPU BAT! Gaur goizean istripu bat gertatu da. Neska bati gertatu zaio. Goizean joateko lanera haize gogorra jo du eta jausi du neska. Goizean 9:00etan parketik. Haize gogorragatik hostoak bere aurpegiari jausi zaio eta ezin du begiratu. Gero 10:00etan hospitalera joan da. Bera gurasoak etorri dira. Laura izena du bere ama Maria eta bere Aita Carlos. Oina oso txarto dago eta ere bai bere besoa. Hori dena. Hori dena gertatu da.

Gaitasun Soziolinguistikoa	Gaitasun Diskurtsiboa	Gaitasun Linguistikoa
2	2	1

- ✓ Helburua ozta-ozta betetzen da. Informazio testua izan arren, eta gaiari nolabait eutsi, erregistroa ez da egokia. Testu laburra da eta informazioa urria da.
- ✓ Ideiak eta datuak sakabanatuta agertzen dira; ez dago osotasunik. Testua uler daiteke baina ez da oso koherentea. Lokailuren bat agertzen da ("gero").
- ✓ Akats asko daude eta, horren ondorioz, ulergarritasuna eragozten da. Lexikoa eskasa da eta maiuskulak txarto erabilia.

01 IDATZI ZURE ALBISTEA:

- ❖ Zer gertatu da?
- ❖ Nork egin du?
- ❖ Nola gertatu da?
- ❖ Noiz eta non izan da?
- ❖ Zergatik gertatu da?

- Gogoratu: goiburua eta gorputza.
- Antolatu testua paragrafoetan.
- Modu argi eta ordenatuan idatzi.
- Idatzi **gutxienez 100 hitz**.

..... MENDIAN

Bazegoen bi ume mendia le egitera eta ondo pasatseko. Hurrengo egunean ume bat porpoia pistu zuen sua egiteko eta zuhaitz bat erre zen. Gero aholkuailei deitu zieten, eta dambora pasa eta gero, ez zuen suak ibazli, zeren su asfo zenden.

Gaitasun Soziolinguistikoa	Gaitasun Diskurtsiboa	Gaitasun Linguistikoa
1	2	1

- ✓ Helburua nekez betetzen da, oso testu laburra da eta ez dio eskatutako gaiari eusten. Erregistroa ez da egokia eta informazioa oso urria da.
- ✓ Ideiak eta datuak nahasiak agertzen dira, edukien oinarritzko garapen bat dago. Testuan ez dago kohesio handirik nahiz eta lokailu batzuk ondo erabili ("Hurrengo egunean", "gero"). Osotasuna galdu da.
- ✓ Akats gramatikal ortografikoak eta sintaktikoak daude; horren ondorioz, ulergarritasuna eragozten da. Hiztegia urria da.